

**SOLDATAK HANDITZEA, ABERASTASUNAREN
BANAKETA JUSTUAGOA EGITEKO BIDEA**

ELAren Azterketa Bulegoa. 2011ko maiatza

0- SARRERA

Dokumentu honetan aztertuko ditugun datuek egiaztatzen dutenez:

- Aberastasunaren banaketaren bilakaerak enpresarien eta kapitalaren errentei dakarkie onura, lan-errenten kaltetan.
- Desoreka hori hazten delarik, langileek, langabeek eta pentsiodunek batez besteko errenta baino diru-sarrera txikiagoak jasotzen dituzte. Enpresa handiak zuzentzen dituztenek, ordea, lotsagarritzat hartu daitezkeen izugarritzko diru-sarrerak dituzte.
- Enpresen mozkinak 2010ean hazi egin izanak ere erakusten du gure gizarteko berdintasunik eza, lan-kostuak urritu egin baitira.
- Langileok inflazio hazkorrari eta interes-tasen (Euriborraren) igoerari egin behar diegu aurre.

Hona hemen hainbat gaien inguruko datuak:

1.- ERRENTAREN BANAKETA: LAN ERRENTEN GUTXIPENA ETA ENPRESARIEN ETA KAPITALAREN ERRENTEN GEHIKUNTZA


Lan-errentetara doan aberastasun edo BPGd zatiak (Soldatuko Ordainsariak) beheranzko joera argia erakusten du, enpresarien eta kapitalaren errenten partea (Ustiapeneko Soberakin Gordina) gero eta handiagoa delarik.

Euskal Autonomia Erkidegoari (EAE) buruz, Eustatek 1980tik aurrerako datuak eskaintzen ditu. Nafarroari dagokionez, NEIren informazioak, 2000. urtetik aurrerakoa bada ere, EAEkoaren norabide bera agertzen du. Hauek dira daturik nabarmengarrienak:

EAEn

- EAEn, 1980tik 2009ra artean, lan-errentek 7,1 puntu galdu dituzte, BPGd-aren %57,1etik %50 izatera igaro dira eta; enpresarien eta kapitalaren errentak, aitzitik, 5,6 puntu hazi dira, BPGd-ean dagokien zatia %36,1etik %41,7ra igaroz.
- 2009an 1980ko aberastasun-banaketari eutsi balitzaio, lan-errentak 4.592,5 milioi euro gehiago izango ziren, eta soldatako pertsona bakoitzak 5.979 euro gehiago izango zituen urte horretan.

ABERASTASUNAREN BANAKETAREN BILAKAERA (BPGd %).
EAE, 1980-2009



Iturria: Eustat

SOLDATAKOEN ORDAINSARIAN IZANDAKO GALERA. EAE, 1980-2009


GUZTIRA	4.592,5 milioi €
SOLDATAKO LANGILEKO	5.979,0 €

Iturria: ELA, Eustaten informazioan eta BAIn oinarriturik

Nafarroa

- Nafarroan, Soldatuko enordainsaria BPGd-aren %50,2 izan zen 2009an, 2000az gero (NEIren datuak hasten diren urtetik aurrera, alegia) 1,4 puntu (%51,6tik %50,2ra) jaitsi ondoren. Ustiapeneko Soberakin Gordina BPGd-aren %42,9 izan zen 2009an, 4 puntu igo ostean (%38,9tik %42,9ra). Lan-errentek BPGd-ean galdu dituzten 1,6 puntu horiek hauxe adierazten dute: 2009an 2000ko aberastasun-banaketa berdina egin balitz, soldatuko langileen guztizkoak 254,7 milioi euro gehiago irabaziko zituela. Era horretan, soldatuko langile bakoitzak 1.136,3 euro gutxiago poltsikoratu zituen, urte horretan.

ABERASTASUNAREN BANAKETAREN BILAKAERA (BPGd %).
NAFARROA, 2000-2009



Iturria: NEI

SOLDATAKOEN ORDAINSARIETAN IZANDAKO GALERA.

Nafarroa, 2000-2009

GUZTIRA	254,7 milioi €
SOLDATAKO LANGILEKO	1.136,3 €

Iturria: ELA, NEIren informazioan eta BAIn oinarriturik

2.- GEHIENGOAREN DIRU-SARRERAK, BATEZ BESTEKO ERRENTAREN OSO AZPITIK. ENPRESA HANDIETAKO ZUZENDARITZA-KIDEEN DIRU-SARRERA LOTSAGARRIAK

Per capita errenta edo biztanleko errenta lurralde batean dagoen aberastasuna bertako biztanle-kopuruarekin zatitzearen emaitza da. Hego Euskal Herrian, biztanleko errenta **31.334 eurokoa** da. Hau da, berton sortutako aberastasun guztia berdintasunez banatuko balitz, pertsona bakoitzak (edozein adinetakoak) 31.334 euro jasoko zituen (31.488 EAEn eta 30.799 Nafarroan).

Baina errentaren banaketa ez da batere orekatua. Horren ondorioz, langileen, pentsiodunen eta langabezia-prestazioak jasotzen dituzten pertsonen batez besteko irabaziaz biztanleko errentaren oso azpitik daude:

- A) 2008an, HEHko langileen **batez besteko irabazia 24.020 eurokoa izan zen EAEn, eta 21.950 eurokoa, Nafarroan**. Are baxuagoa da, esterako, aldi baterako kontratua duten pertsonen batez besteko irabazia (18.806 euro EAEn eta 16.913 euro Nafarroan) eta emakumeena (20.466 euro EAEn eta 18.065 Nafarroan).

URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA (€). HEH, 2008

	EAE	NAFARROA
Batez besteko irabazia	24.020	21.950
Aldi baterako kontratudunen batez besteko irabazia	18.806	16.913
Emakumeen batez besteko irabazia	20.466	18.065

Iturria: ELA, NEIren datuetan oinarriturik

- B) HEHn, **batez besteko pentsioa** 1.000 eurotik beherakoa da. 2011ko martxoan, zehazki, **974,12 eurokoa** izan da (990,76 eurokoa EAEn eta 938,4koa Nafarroan); beraz, arrazoizkoaren baitako bizi-kalitatea izateko beharko litzatekeen edozein zenbateko duinetatik oso urrun dago.

BATEZ BESTEKO PENTSIOA (€). HEH, EAE, NAFARROA, 2011ko MARTXOA

	HEH	EAE	NAFARROA
Batez besteko pentsioa	974,12	990,76	905,24

Iturria: ELA, Lan Estatistikei buruzko Buletinean oinarriturik

- C) **Langabeziako prestazioaren batez besteko** zenbatekoa (prestazioa kobratzen dutenena) **945 eurokoa** izan da HEHn, 2011ko martxoan (EAEn, 944,4 euro dira, eta Nafarroan, 946,8 euro).

ONURADUN BAKOITZAK BATEZ BESTE JASOTAKO ZERGAPEKO PRESTAZIOA (€). HEH, 2011ko MARTXOA

	HEH	EAE	Nafarroa
Langabeziako batez besteko prestazioa	945,0	944,4	946,8

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoa

Langileriaren sektore handi batek hilabete amaierara heltzeko oztopo larriak dituelarik, desoreka gero eta handiagoen ondorioz, enpresak zuzentzen dituztenen diru-sarrerak lotsagarritzat hartu daitezke, kasu askotan:

- A) **IBEX-35ean kotizatzen duten** enpresetako administrazio-kontseiluak 2,3 milioi euroko batez besteko ordainsaria poltsikoratu zuten 2010ean administrazio-kontseiluko. Alegia, 238 milioi eurotik gora banatu zituzten euren artean. Krisiaren aitzakiaz langileentzat etengabe murrizketak galdatzen dituzten berberen ordainsariok sumina pizteko modukoak dira.
- B) **Enpresa horietako kontseilukideen** batez besteko ordainsaria 510.000 eurotakoa izan da zeregin horren truke.

IBEX-35eko ADMINISTRAZIO KONTSEILUKIDEEN ORDAINSARIA. 2010

Administrazio-kontseiluko batez besteko ord.	2,3 milioi €
Kontseilukideen batez besteko ordainsaria	511.073 €
Guztizko ordainsaria	238,2 milioi €

Iturria: Erakunde-gobernuaren urteko txostenak, urteko kontu laburtuak, enpresen hiru hileko finantza-txostenak

- C) Bereziki aipagarriak dira **Repsol YPFeko presidente Antoni Brufauk eta Iberdrolako Ignacio Sánchez Galánek** poltsikoratzen dituzten dirutzak. Repsol YPFko presidenteak 7,11 milioi euro jaso zituen 2010ean, eta Iberdrolako presidenteak, Ignacio Sánchez Galánek, 6,9 milioi euro; hau da, 15,2 milioi euro kobratu ditu azken bi urteetan.
- D) 2010ean, Ibex-35eko 9 akziodun nagusiek 1.347,6 milioi euroko dibidenduak eskuratu zituzten, guztira. Azpimarratzeko modukoa da Amancio Ortegaren (Inditex) kasua, dibidendutan 591,4 milioi euro heldu baitzitzaizkion, edo Emilio Botínena (Santander), 49,5 milioi euro jaso zituen eta.

IBEX-35eko 9 AKZIODUN NAGUSIEN DIBIDENDUAK. 2010

2010eko dibidenduak	1.347,6 milioi €
---------------------	------------------

Iturria: CNMV

- E) **Bankari handiek**, pentsio publikoen murrizketak exijitu eta txalokatu ohi dituzten eurek, ondo babestuta dute euren burua pentsio-plan pribatuekin. Espainiako estatuko sei banketxe handiek (Ibex-35eko bostek gehi Banestok) 389 milioi euroko **konpromisoak dituzte hartuta, pentsioen arloan**, 17 pertsonarekin (administrazio-kontseiluetako presidente, kontseilari delegatu eta exekutiboekin). Bakoitzari, beraz, 22,9 milioi euro dagozkio, batez beste.

BANKARI HANDIEN PENSIO KONPROMISOAK

Batez besteko pentsioa	22,9 milioi euro
Konpromisoa, guztira	389 milioi euro


Iturria: Expansión

3- HEGO EUSKAL HERRIKO LAN KOSTUAK, EUROPAKO BATEZ BESTEKOAREN AZPITIK. PRODUKTIBITATEA, OSO GAINETIK.

Lan-kostuei eta produktibitateari buruzko datuak erkaturik, zalantza barik baieztatu daiteke Hego Euskal Herrian, lan-kostuak Europako batez bestekoa baino urriagoak diren arren, produktibitatea nabarmen handiagoa dela.

EAEn, lan-kostuak Europar Batasuneko 27 estatuetako batez bestekoa baino %11,4 txikiagoak dira, eta Nafarroakoak batez besteko hori baino %15,7 txikiagoak. Grafikoan ikusten denez, gure lan-kostuak Espainiako estatukoak edo Portugalekoak baino handiagoak badira ere, oso urrun daude, azpitik, Suedia, Belgika, Frantzia edo Alemaniakoetatik, herrialde horietako lan-kostuak, hurrenez hurren, batez bestekoa baino %54,5, %37,8, %31,6 eta %28,5 handiagoak direlarik.

LAN KOSTUA ESTATUZ ESTATU (27-EB = %100). 27-EB, 2007



Iturria: Eurostat, INE

Produktibitateak eratzeko behar diren datuak EAEren kasuan baino ez daude, Eustatek eskainiak, hain zuzen. Datuon arabera, irizpide homogeneousak erabilita, EAEko produktibitatea 27 estatu-kideko Europar Batasuneko handienetakoa da. Zehazki, 27-EBko batez besteko produktibitatea 2009ko ekitaldian 100ekoa izan bada, EAEkoa 132,4an ageri da. Irlandak (135,2) eta Luxemburgek (167,9) baino ez dute EAEkoa baino produktibitate handiagoa. Hortaz, Danimarkak (100,6), Alemaniak (104,5) edo Suediak (111,5) EAEkoa baino produktibitate nabarmen txikiagoak dituzte.

LANGILEKO LAN PRODUKTIBITATEA, ESTATUZ ESTATU
(27-EB=%100). 2009

ESTATUA	LANGILEKO LAN PRODUKTIBITATEA	ESTATUA	LANGILEKO LAN PRODUKTIBITATEA
Bulgaria	37,2	Grezia	102
Errumania	47,1	Alemania	104,5
Letonia	49,9	Finlandia	107,1
Lituania	55,8	Italia	109,7
Estonia	64,4	Erresuma B.	110,1
Polonia	65,2	Espainiako E.	110,8
Hungaria	70,2	Holanda	110,9
Txekiar Errep.	71,8	Austria	111,5
Portugal	73,9	Suedia	111,5
Eslovakia	78,9	Frantziako E.	120,5
Eslovenia	82	Belgika	124,9
Malta	88	EAE	132,4
Txipre	88,7	Irlanda	135,2

27-EB	100	Luxemburg	167,9
Danimarka	100,6		

Iturria: Eustat

Gure lurraldeak langileko produktibitate handiagoa izateak enplegu gutxiagoz gehiago ekoizten dela esan nahi du. Krisialdiko urteetan, produktibitatearen diferentziala handitu egin da. BPGd-aren bilakaera, Hego Euskal Herrian eta Europar Batasunean, antzekoa izan bada ere, hemen askoz enplegu gehiago suntsitu da, ehunekotan alderaturik.

Hego Euskal Herrian langabezia tasa %12tik gorakoa da, Europar Batasuneko batz bestekoa baino nabarmen handiagoa (%9,9). Gehiago ekoiztea enplegu gutxiagorekin (produktibitatea altuagoa izatea suposatzen duena), langabezia handitzea dakar. Produktibitatea denaren gainetik handitu behar dela esaten dutenek, langabezia handitzearen aldeko apustua egiten ari direla jakinarazi beharko liokete gizarteari. ELA politika hau gaitzesten du.

4- 2010: ENPRESEN MOZKINAK GORAKA ETA LAN KOSTUAK BEHERAKA

Espainiako Bankuak finantzen arlokoak ez diren Espainiako estatuko 744 enpresak (guztizkoaren %12,1ek) 2010eko urtealdian aurkeztutako emaitzen kontuak 2009ko ekitaldikoekin alderatzean ageri den bilakaera aztertu du. Txosten horren datuek erakusten dutenez, mozkinen eta lan-kostuen bilakaerak oso ezberdinak dira. Izan ere, 2010ean:

- Enpresen emaitza arrunt garbia %6,5 hazi da.
- Langile-gastuek %1eko gutxipena izan dute (batez besteko soldata-gehikuntza %0,8koa izan zen, eta enpleguak %1,8ko jausia izan zuen).

FINANTZEN ARLOKOAK EZ DIREN ENPRESEN EMAITZEN KONTUEN **URTEARTEKO BILAKAERA, ERRENTAGARRITASUNAK.** **ESPAINIAKO ESTATUA, 2010-2009**

	2010 / 2009
Langile-gastuak	-%1
Ekitaldiko emaitza	%6,5

Iturria: Espainiako Bankua

Ibex 35-eko enpresek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalera (CNMVra) igorritako datuek erakusten dutenaren arabera, enpresa horiek 49.881 milioi euroko etekina izan dute 2010ean; hau da, 2009an baino %24,5 gehiago lortu dute, enpresa handiek gainerakoek baino mozkin handiagoak izan dituztelarik.


5- PREZIOAK ETA HIPOTEKAK GORANTZ

Langile-gastuek, ikusi berri dugunez, beheranzko joera dutelarik ere, prezioak garestitu egiten dira, eta, ondorioz, biztanleria langilearen erosteko ahalmena gero eta murriztagoa da.

KPI

Prezioek goranzko joera iraunkorra erakusten dute. Zehatz esateko: 2010eko urtarrilean, urtearteko KPI indizea (hots, azken 12 hilabeteetako prezio-gehikuntza neurtzen duena) %1ekoa zen; 2011ko apirilean, urtearteko KPIa %3,8an kokatu da.

KPI INDIZEAREN URTEARTEKO BILAKAERA (%).
ESPAINIAKO ESTATUA, 2010eko URTARRILA- 2011ko APIRILA



Iturria: INE

EURIBOR INDIZEA

Biztanleria langilearen sektore handi bat hipoteka-kreditu bat ordaindu beharrari loturik dago. Euriborrak azken hilabeteetan hasi duen igoera baieztatzen bada, langileen erosteko ahalmena, bereziki diru-sarrera gutxien dituzten langileena, oso murriztuta geratu daiteke.

Ikus dezagun, adibidez, 180.000 euroko mailegua 30 urtean ordaindu behar dutenen egoera. Euriborra puntu bat igotzeak 100 euro inguruko gehikuntza eragiten du hileko kuotan, ondorengo taulak erakusten duenez:

30 URTEAN ORDAINTZEKO 180.000 EUROKO KREDITU BATEN

HILEKO KUOTA

INTERES TASA	HILEKO KUOTA	GEHIKUNTZA / %2
%2	665,32	
%2,5	711,22	+45,9
%3	758,89	+91,57
%3,5	808,28	+142,96
%4	859,35	+194,03
%4,5	912,53	+247,21

%5	966,28	+300,96
----	--------	---------

Iturria: ELA, Espainiako Bankuaren informazioan oinarriturik

6- ONDORIOZTAPENAK

1. Aberastasunaren banaketa eztabaidaren erdigunean ipintzeko garaian gaude. Aberastasuna ekonomiaren hazkunde-garaietan zein krisialdietan banatzen da. Baina banaketa hori gero eta desorekatuagoa da. 2010ean enpresarien mozkinak hazi eta soldatak urritu izana esandako horren erakusgarri argia da.
2. Bai arlo publikoan, bai pribatuan, soldaten eroste-ahalmena gutxitzeko erasoak etengabeak dira. Horrekin batera, KPIaren igoera hazkorra (%3,8koa apirilean, urtearteko bilakaeraren arabera) eta hipoteka-kuoten gehikuntza gogorra dakarren Euribor indizearen igoera ere nozitu beharrean gaude. Politika horren helburua enpresarien etekinak langileak pobretzearen truke handitzea da. Langabezia daudenak eta pentsioa kobratzen dutenak ere pobretzen ari dira (pentsioen murrizketen ondorioz, besteak beste).
3. Aberastasunaren banaketa justuagoa izan dadin, soldaten erosteko ahalmena handitu behar da. Dokumentu honetan bildutako datuak ezin txarragoak dira, eta agerian uzten dute azken urteetan errenta-transferentzia eskerga jazo dela lan-esparrutik kapitalera. Soldaten arteko desorekak ere areagotu dira, soldata urriak eskuratzen dituzten langileak gero eta gehiago direlarik, enpresetako zuzendaritza-kideen ordainsariak ezmoral izateraino handitu baitira.
4. Beharrezkoa da ere lanaren banaketan aurrera egitea, lanaldiak murriztuz. Lanaldia luzatzearen aldeko proposamenek langabeziak gora egitea suposatzen duten, eta, beraz, aberastasunaren banaketa injustuago bat.
5. Ekonomian marjina zabala dago langileriaren diru-sarrerak handitzeko. Langabeziako prestazioen eta pentsioen soldata-mailak batez besteko errentaren oso azpitik daude. Aberastasunaren banaketari, soldata-mailei eta produktibitate erkatuari buruzko datuek argi erakusten dute langileen diru-sarrerak handitzea posiblea eta komenigarria dela.
6. Enpresariak enpleguaren eta langileen soldaten pentzudan ari dira enpresa-mozkinak gizontzen. Gobernuak (Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua, Foru Aldundiak, Espainiako Gobernua eta Europako instituzioak) aginte ekonomikoaren esanetara daude.
7. Ez da harrigarria enpresetako goi-karguek, itzelezko ordainsariak jaso eta euren burua milioi eurotako pentsio-planekin babestuta dituzten horiek, gobernuei zer egin behar duten agintzea eta gobernuek beraiei kasu egitea. Ez da harrigarria, halaber, Ustelkeriaren aurkako Estatu Taldeak, Europako Kontseiluaren menpeko organoak, prestatutako Txostenean ateratako ondorioak; alegia: Espainiako estatuak ez duela behar beste aurrera egin, bertako alderdi politikoen finantzen gardentasunari dagokionez. Horrez gain, gaitzesgarri deritzo bankuek alderdiei oso baldintza onenetako maileguak emateko eta kredituak arrazoi nahikorik gabe ezeztatzeko jardunbideari.